

EA, TXIKI ETA LUZEA

BARRI-ITURRIA

Ba ete dago gaur etxetan komoda zarririk?

Paper zarrak bai. Eta alaxe, denporaz oritutako bat bialdu dauste: Emen ei dagoz iatarren jakin-garriak.

Orra. Paper ori Pascual Madoz'en «Diccionario Geografico» tik norbaitek maitasunez artu eta kopiatua da. 1847 urtean agertu zan liburu ori.

Ea'tik zenbat legua edo bost kilometroko dagozan Burgos, Kalagurri eta beste errietara esateak, ez dot uste merezi dabenik. Ez al dago lengo tokian gure erri bakesu au?

GIROA TA ETXEAK

Aize bolada guztiak joten ei dabe bertan eta giro, klima egokia zala emengua sukar edo kalentura purtugarriak batzeko.

Eun etxe, Iau kale eta plaza bat sasoi aretan. Kontseju etxea be bai, nai ta zar eta erdi usteldua; kartzela bat, eskola bat 70 umegaz. Bosteun errial urteko ordaintzen jakozan eskola orretako maixuari.

BASOAK ETA BIDEAK

Aresti, Allua eta Endia mendiak gaztaiña, aritz eta artaz be-teak. Basobarri'n metal ura.

Erritik urten al izateko bide bi: Lekeitio'rakua bat eta Gernika'ra bestea, azken au urte aretan oraindik amaitu barik.

Martizen eta domeketan etortzen ei zan karterua.

LURRAREN FRUTUAK

Artzen ziran igali edo frutuak: Gari, arto, gaztaiña, patata eta babak. Erbi ta eper ugari inguruetan. Arraiña be bai.

Urun errota bi eta burdintegi (ferreria) bat.

Sal-erosketako, komerziorako, bertan egozan sei txalupak arrantzaten eben arraiña.

BIZI-LAGUNAK

148 etxe-jaun bizi ziran; 756 bizi lagun errian danetara.

Iruregei urte inguru lenago, itxasontziak be egiten ei ziran bertan, baiña liburu au agertu zan sasoiarrantzako batelak bakarrik. Arrantzale erria izanarren,

gazterik geienak Ameriketara joaten ei ziran, iru-lau urterako, diru pixkat egiteko gar eta preminaz.

Ara Madoz'ek esandakuak, labur-labur barriztuta, oraingo paper zurietan.

GAUR KAPITANAK

Eta gaur?

Gaitz billatu leike itxasoetan, itxasontzi merkatari andietan, eatarren bat ez dabillen ontzirik. Galoidun beti. Kapitan, pilotu edo antzeko. Ba dago, ba, itxas giroa bertan. Nai ta kaia, portua, ondarez beteta, udazalien batel txikiak osta-osta gordeteko baiña bestetarako izan ez.

Izenak bai: «portu-solo», «portu-txiki» eta orrelakoak. Gaur, geienak, eurretan etxeak egin diralako, izena be galduta.

ETA LANTEGIA

Industria bakarra: Ingarkintza. Ingarra, ingi-arra edo ingorra, ingogorra esan nairik artuta be, kartoia da. Beraz kartoigintza. Berba gogorra egiten da askorentzat ori, baiña ez al dogu izpar-ingi gure esaretan erabilten? Beraz kartoigintza errezago izango ba litz be, ez Pilatos'enik egin zer izan ete leiken zuritu ezinda.

Eatarrak Ingarkintza zabaldu dabe bidez bide.

ELEIZAK ETA EDATETXEAK

Uri-buru edo kapital batek baiño parroki geiago. Eta Bilbo'ko Somera kalean aiña taberna.

Bake eta ixiltasun toki edo kabi deituten dautse etxe barrien merkatariak. Neguan bai.

ITXASORA

Eta geiago?

Zerbait luzatzeko, barriro itxasora jo bear. Kontu zarretara.

Orain 150 urte ainbat txalupa ibiltzen ziran Ea'tik merkataritzan. Bilbo'ko Consulakoan agertzen dira ainbaten azterrenak: Etxezabal, Endeiza, Ibinaga, Goitisol, Kortazar, Erkiaga, Gabika, Zarakondegi eta abar txalopa jaube lez agertzen ziranen abizenak dira. Gaur sendi edo famili orreik jarraitzen dabe. Beste izen askok be bai.

IA'N OTARRAINAK

Or Ea. Ea edo Ia. Bertakoak naiago dabe Ia.

Elantxobe ta Lekeitio artean, Natxitu ta Bedaru beso dirala, Kantauri itxasoari begira bizi dan erri txikia da Ia.

Sasoi baten otarrain (langusta) arrantzalien kaia. Ba dakiez ondarrutar arrantzaliak ango kantak:

*joakin Pitxun semiak
Ia'n dabiz iru,
langostatan onena
gazlenak urten du...*

A. ZUBIKARAI



IBARRETXE MARRALARIAK ONELAN IKUSI EBAN EA